



ITZALI TELEFONOA ETA ERLOJUAREN ALARMAK

PROBA EGIN AURRETIK	<p>1. Jo ezazu adierazitako lekura, eta jar zaitez esaten dizuten lekuan.</p> <p>2. Boligrafoa eta erantzun-orria dituzula egiaztatu. Nortasun-agiria edo pasaportea mahai gainean jarri, identifikazio-lanak errazteko. Erlojua eramatea gomendatzen da —ez mugikorra, ez erloju adimenduna—.</p> <p>3. Zaintzaileren baten laguntza behar baduzu, eskua altxatuz adierazi.</p> <p>4. Erantzun-orriak bi ale ditu, bata zuria eta bestea horia. Bukatutakoan, zaintzaileetako batek jasoko ditu orri ZURIA; orri HORIA, berriz, zeuk gorde beharko duzu. Ez bereizi orriak ariketa bukatu arte.</p> <p>5. Irakurgailu optikoarekin zuzenduko da ariketa hau. Beraz, ezinbestekoa da laukitxoak ongi markatzea, erantzun-orrian bertan adierazten den moduan. Ez jarri ixarrik, ez biribilik; oso-osorik bete laukitxoak. Hala egin ezean, baliorik gabe gera liteke egindako ariketa.</p>
PROBA EGITEKO ORDUAN	<p>6. BETE datu hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Nortasun-agiriaren zenbakia eta letra: Idatzi goiko laukitxo zurietan nortasun-agiriaren zenbakiak eta letra, eta gero zenbaki bakoitzaren eta letraren azpian dagokion laukitxoak markatu. ✓ Bete laukitxoak: 1. deitura // 2. deitura // Izena // Data: 2017/03/25 ✓ Azterketa-eredua: A, B, C edo D, galdera-orrietan jartzen duena. Adi: azterketa-eredua adierazten ez bada, edo ez badator bat emandako galdera-orrietan ageri denarekin, proba ez da zuzenduko. <p>7. Erabat isilik egon beharra dago ariketa egin bitartean. Inork jokabide okerrik erakutsi edo besteei enbarazu eginez gero, ez zaio proba zuzenduko. Galarazita dago mugikorrek piztuta edukitzea —baita hegazkin-moduan ere—, nahiz eta gordeta eduki. Orobat dago galarazita transmisore edo hargailu gisa erabil daitekeen elementu oro. Halakorik harrapatzen zaionari ez zaio proba zuzenduko. Emisio irrati-elektrokoak antzemateko sistemak erabiliko direla ohartarazten da. Ariketak egiten hasteko nahiz bukatzeko aginduak ez betetzeak ere proba ez zuzentzea ekarriko du berekin.</p> <p>8. Bertaratze-ziurtagiria behar baduzu, esaiozu zeure identitatea kontrolatzen duen pertsonari.</p> <p>9. Kontu handiz ibili erantzunak adierazterakoan, boligrafoaren marka ezin baita ezabatu. Galarazita dago tipexa erabiltzea. Erantzunekin nahasten bazara, beste erantzun-orri bat eska dezakezu, baina gogoan izan berriro bete beharko dituzula goiko datuak; ez duzu geratzen zaizuna beste denborarik izango. Ariketa egiteko denbora 100 minutukoa da —bi probak—.</p> <p>10. Galdera bakoitzak 4 erantzun ditu aukeran: A, B, C eta D. Galdera bakoitzak erantzun baliodun bat eta bakarra dauka. Zuzen bakarra den hori izango da erantzun balioduna, edo, aukera bat baino gehiago izanez gero, erabatekoena, orokorra. Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 emango da; bi aldiz markatutakoengatik eta zuri utzitakoengatik ez da ez punturik gehituko, ez kenduko; erantzun okerrak, berriz, 0,33 punturekin zigortuko dira.</p> <p>11. Lehenengo 60 galderak lehen ariketako lehenengo probari dagozkio. Proba honetan puntuazioak emateko formula puntu gehien lortzen dituenak lortutako zuzeneko puntuazioan oinarrituko da (20 puntu). Proba gainditzeko (0 puntu), lortutako zuzeneko puntuaziorik handienaren % 60 lortu beharko da. Hortik beherako puntuazioa ateratzen bada, proba gainditu gabetzat joko da.</p> <p>12. 61. galderatik 100.era bitartekoak lehen ariketako bigarren probari dagozkio. Proba honetan puntuazioak emateko formula puntu gehien lortzen dituenak lortutako zuzeneko puntuazioan oinarrituko da (15 puntu). Proba gainditzeko (0 puntu), lortutako zuzeneko puntuaziorik handienaren % 50 lortu beharko da. Hortik beherako puntuazioa ateratzen bada, proba gainditu gabetzat joko da.</p>
PROBA EGIN ONDOREN	<p>13. Erantzunen txantiloia. Ateratzean, erantzunen behin-behineko txantiloia jaso ahal izango duzu.</p> <p>14. Proba berrikustea. Akatsen bat aurkitzen baduzu probaren diseinuan, edo erantzunen behin-behineko txantiloian, Udalaren web-orrian eskuragarri dagoen <i>Test moduko hautatze probak berrikusteko formularioa</i> baliatuz jakinaraz diezaiokezu epaimahaiari. <i>Muga-eguna: 2017/03/29ko 08:00ak</i>. Behin-behineko emaitzak argitaratzeko data (aurreikuspena): 2017/04/05etik aurrera.</p>